**Esp.zk./Nº expte** 000002/2019- B.5.5
28-03-2019

**MUNGIAKO UDALAREN ETA DANONTZAT JUBILADUEN ALKARTEAREN ARTEKO HITZARMENA**

Mungian, 2019ko martxoaren 29an

Alde batetik. AGER IZAGIRRE LOROÑO JAUNA, Alkatea, Mungiako Udalaren ordezkari eta berorren izenean.

Bestetik, Mª MERCEDES BARAIAZARRA andrea, Jubiladu eta Pensinodunen Mungiako DANONTZAT Alkartearen presidentea (IFZ: G48261226). Aurrerantzean, Alkartea.

Bi aldeok Hitzarmen hau egiteko besteko ahalmena aitortzen deutsie alkarri, eta bata besteagaz bat datozala, ondokoa

**ADIERAZO DABE:**

**Lehenengoa**.- 1983ko bagilaren 14an sortu zan Mungian (Bizkaia) Alkarte hau; eta berorren egoitza soziala gaur egun Landesa-Etxe-taldea, 5 behean dago.

**Bigarrena**.- 1989ko maiatzaren 29an, Eusko Jaurlaritzako Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Sailak ebazpena emon eban Mungiako Danontzat Alkarteak eskatutako sorrera-inskripzinoa onartzeko; alkarteei buruzko zezeilaren 12ko 3/1988 Legeak xedatutakoaren arabera; eta ondoko inskripzino-zenbakia hartu eban: AS.R.P.B. 01624.

**Hirugarrena**.- Alkartea irabazi asmo bako alkartea da, eta berorren helburu nagusia hau da:

a) Hirugarren adinak dituan baloreak aurkitzea eta garatzea.

b) Bazkideek kultura, denporapasa, astialdi aktibo eta antzeko arloetan daukiezan beharrizanak aztertzea, eta eskura dagozan baliabide guztiak erabiltea beharrizan horreei erantzuteko, horretarako era guztietako ekintzak antolatuta.

c) Jagoken Erakunde eta Instituzinoei bazkideen arazoen barri emotea eta eurakaz batera arazook aztertu eta konpontzen ahalegintzea.

**CONVENIO ENTRE EL AYUNTAMIENTO DE MUNGIA Y LA ASOCIACIÓN DE JUBILADOS DANONTZAT**

En Mungia, a 29 de marzo de 2019

De una parte, D AGER IZAGIRRE LOROÑO, Alcalde, en nombre y representación del Ayuntamiento de Mungia

De otra, DÑA. Mª MERCEDES BARAIAZARRA, Presidenta de la Asociación DANONTZAT de Jubilados y Pensionistas de Mungia, con NIF G48261226, en adelante la Asociación.

Ambas partes se reconocen capacidad suficiente para otorgar el presente Convenio, y de común acuerdo,

**EXPONEN**:

**Primero**.- Que, con fecha 14 de Junio de 1983, fue constituida en Mungia (Bizkaia) la Asociación que actualmente tiene su domicilio social en Mungia calle Landesa- Etxe-taldea, 5 bajo.

**Segundo**.- Que, con fecha de 29 de Mayo de 1989, el Departamento de Justicia, Trabajo y Seguridad Social del Gobierno Vasco dictó resolución por la que se acuerda la inscripción de constitución solicitada por la Asociación Danontzat, de Mungia (Bizkaia), de conformidad con la Ley 3/88, de 12 de febrero, de Asociaciones, quedando inscrita con el número AS.R.P.B. 01624.

**Tercero**.- Que la Asociación es una asociación sin ánimo de lucro cuyo objetivo principal consiste en:

a) El descubrimiento y desarrollo de los valores de la tercera edad.

b) Estudiar las diversas necesidades de los asociados en los aspectos culturales, recreativas, ocio-ocupacionales, etc. y valerse de todos los medios a su alcance para la solución de las mismas, organizando todo género de actividades conducentes a tal fin.

c) Interesar a las instituciones y Organismos competentes y contribuir con ellos al estudio y resolución de los problemas de los asociados.

d) Bazkideen ideologia errespetatzea baina alkarte barruan jarduera politikorik onartu barik.
Aurreko atalean azaldutako ekintzen kaltetan ez dan bitartean, Alkarteak bere helburuak beteteko, ondokoak egin ahal izango ditu:

- Era guztietako jarduera ekonomikoak gauzatu, beti bere, alkartearen helburuak lortzeko edota horretarako beharrezkoak diran baliabideak batzeko badira.
- Era guztietako ondasunak euki zein erosi (edozein titulu erabilita), baita edozein kontratu edo egintza burutu bere.
- Legeakaz edo Estatutuokaz bat datozan ekintzak gauzatu.

d) Respetar la ideología particular de sus asociados, sin permitir actividades políticas de los mismos, en el ámbito de la Asociación.
Sin perjuicio de las actividades descritas en el apartado anterior, la Asociación, para el cumplimiento de sus fines podrá:

- Desarrollar actividades económicas de todo tipo, encaminadas a la realización de sus fines o a allegar recursos con ese objetivo.
- Adquirir y poseer bienes de todas clases y por cualquier titulo, así como celebrar actos y contratos de todo género.
- Ejercitar toda clase de acciones conforme a las Leyes o a sus estatutos.

**Laugarrena.-** Udalaren 2019ko aurrekontuan diru-laguntza nominatibo bat dago DANONTZAT Alkartearen izenean.

**Cuarto.-** Que el Presupuesto del Ayuntamiento para el ejercicio 2019 incorpora una subvención nominativa a favor de la Asociación DANONTZAT.

**Bosgarrena**.- Udalak, Alkatetza Dekretu bidez erabagi eban Danontzat Alkarteari diru-laguntzinoa emotea, hitzarmena sinatu ezkero. Baldintza hori agiri honen bidez beteten da.

**Quinto.-** Que el Ayuntamiento, mediante resolución de Alcaldía, resolvió abonar a la Asociación Danontzat la subvención bajo la condición de la suscripción de un convenio regulador, condición que se cumple con el presente documento.

Hori danori kontuan izanda, alde biok, bat gatozala, hitzarmen hau sinatzen dogu, eta ondokoak dira

Por lo expuesto, ambas partes, de mutuo acuerdo, suscriben el presente Convenio de conformidad con las siguientes

## KLAUSULAK

**Lehenengoa**.- Hitzarmen honen xedea, batetik, Mungiako Udala eta Danontzat Alkartearen arteko alkarlanerako bideak urratzea da eta, bestetik, alkartearen lanaren bidez hirugarren adinaren sustapen eta indartze lana bermatzeko, alde bakotxak bere ganean hartzen dituan konpromisoak, finantziarioak nahi materialak araupetzea.

**Bigarrena**.- Mungiako Udalak laguntza emongo dau Danontzat Alkarteak 2019 ekitaldian lan egin daian. Laguntza horren zenbatekoa BERROGEITA HAMAZORTZI MILA ETA BOSTEHUN eurokoa da (58.500,00 €).

**Hirugarrena**.- Mungiako Udalak diru laguntza ordaintzeko agindua emongo dau, eta ordainketa horretarako egutegi hau ezarri da:

a) 20.000€ hitzarmena sinatzean.

b) 20.000€ bagilean.

## CLAUSULAS

**Primera**.- El presente Convenio tiene por objeto establecer los cauces de colaboración entre el Ayuntamiento de Mungia y la Asociación Danontzat, así como regular el marco de compromisos tanto financieros como materiales que cada parte asume con el fin de garantizar la actividad de dicha entidad en el impulso y promoción de la tercera edad.

**Segunda**.- El Ayuntamiento de Mungia contribuirá al sostenimiento de la actividad de la Asociación Danontzat durante el ejercicio 2019 con una aportación de CINCUENTA Y OCHO MIL QUINIETOS euros (58.500,00 €).

**Tercera.-** El Ayuntamiento de Mungia ordenará el pago de la subvención con el siguiente calendario de pagos:

e) 20.000€ a la firma del presente convenio.

f) 20.000€ en junio.

c) 15.500€ urrian.

d) 3.000€, gastuen justifikazinoa aurkeztutakoan, 2020ko lehenengo hiruhilekoan.

g) 15.500€ en octubre.

h) 3.000€, previa justificación de los gastos, en el primer trimestre del año 2020.

**Laugarrena.** -Udal honek emondako diru-laguntza hitzarmen honen hasikeran azaldutako helburuak lortzeko erabiliko dau Alkarteak; batez bere 2019 urterako Alkartearen Ekintzen programan dagozan helburuak lortzeko, beti bere erakunde bakotxaren eskumenak aintzat hartuta eta alkarlana bultzatuta.

**Cuarta**.- La Asociación Danontzat destinará el importe de la subvención concedida por este Ayuntamiento a la financiación de acciones encaminadas a la consecución de los objetivos señalados en el preámbulo y, en especial, a los fines que se señalan en el Programa de actividades de la Asociación para el año 2019, siempre desde el respeto al ámbito competencial de cada institución y procurando la colaboración.

**Bosgarrena**.- Diru-laguntzaren zenbatekoa, bakarka hartuta, nahiz beste administrazino edota erakunde publiko zein pribatuek emondako diru-laguntza edo laguntzak batuta, eta helburu bera lortzeko eskuratzen diran beste sarrera edo baliabide batzuk batuta, ez da inoiz izango emondako diru-laguntzaren helburu dan jardueraren kostua baino handiagoa, bigarren klausularen arabera.

**Quinta**.- El importe de la subvención en ningún caso podrá ser de tal cuantía que, aisladamente o en concurrencia con subvenciones o ayudas otorgadas por otras Administraciones o entes públicos o privados y con cualesquiera otros ingresos o recursos para la misma finalidad, supere el coste de la finalidad para la que se concedió, de conformidad a la cláusula segunda.

**Seigarrena**.- Diruak jaso baino lehenago Alkarteak jagokozan agiriak aurkeztu beharko ditu, egiaztatzeko zerga eta Gizarte Segurantza arloko betebeharrak egunean ordainduta dituala. Udalak ofizioz ziurtatuko dau Alkartearen egoerea Udaleko zergei jagoken arloan.

**Sexta.**- Con anterioridad a la percepción de los fondos, la Asociación Danontzat aportará la documentación acreditativa de estar al corriente de las obligaciones tributarias así como de los pagos de la Seguridad Social que le corresponden. El Ayuntamiento comprobará, de oficio, la situación de la Asociación respecto a los tributos de carácter municipal.

**Zazpigarrena**.- Danontzat Alkarteak 2020ko martiaren 31 baino lehenago honako informazinoa aurkeztu beharko dau Erregistro Orokorrean: 60.000 eurotik behera emondako dirulaguntzetarako, justifikatzeko kontu laburtua (887/2006[1] EDren 75 artikuluan araututa dagoana). Kontu laburtu horretan ondokoek agertu beharko dabe:

**Séptima.**- La Asociación Danontzat presentará, a través del Registro General, y antes del 31 de marzo de 2020, la cuenta justificativa simplificada, regulada en el artículo 75 del RD 887/2006[2] para subvenciones concedidas por importe inferior a 60.000,00 euros, que contendrá la siguiente documentación:

a) Dirulaguntza emoteko ezarri diran ekintzen betetze maila azaltzen dauen memoria. Horretan zehaztu egin beharko dira burutu diran ekintzak eta lortu diran emaitzak.

a) Una memoria de actuación justificativa del cumplimiento de las condiciones impuestas en la concesión de la subvención, con indicación de las actividades realizadas y de los resultados obtenidos.

1 887/2006 ERREGE DEKRETUA, uztailaren 21ekoa, diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege,Orokorraren Erregelamendua onartzen duena.
[1] REAL DECRETO 887/2006, de 21 de julio, por el que se aprueba el Reglamento de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones

**Esp.zk./Nº expte** 000002/2019- B.5.5
28-03-2019

b) Ekintza burutzeko egindako gastuen eta jasotako diru-sarreren zerrenda zehatza; zehaztu egin beharko da bertan hartzekoduna nor dan eta dokumentua zein dan, zenbatekoa, ze egunetan bidali dan eta, ordaindu egin bada, noiz ordaindu dan. Dirulaguntza hori aurrekontu baten arabera emon bada, bataren eta bestearen artean diruetan dagozan aldeak azpimarratu egin beharko dira.

c) Diruz lagundu dan ekintza horretarako jaso diran beste diru-sarrera edo diru-laguntzen zerrendea. Bertan azaldu beharko dira zenbatekoak eta nork emon dituan.

d) Erabili bako diru-gerakinak egon diranean, diru-itzuleraren eta diru horreetatik eratorritako diru-interesen ordainketa-gutuna.

**Zortzigarrena**.- Alkarteak Hitzarmenean hartutako konpromisoetarikoren bat beteko ez baleu, edota emondako dirulaguntzak hitzartutakoa ez dan helbururen baterako erabiliko baleuz, beti bere Udal honek horretarako bideratutako espedienteak hori adierazoten badu, Alkarteak itzuli egin beharko deutso Udalari jasotako zenbatekoa.

**Bederatzigarrena**.- Hitzarmen hau bertan behera ixteko arrazoi izango dira ondokoak:

a) Sinatzen daben alde biak horretarako ados egotea.

b) Danontzat Alkarteak hitzarmen honetan jasotako betebeharrak era larrian ez betetea.

c) Hitzarmen honen izaerearen arabera, indarrean dagozan legeetan jasoten dan beste edozein arrazoi.

Adostasunaren lekuko, partaideek honako dokumentu hau izenpetzen dogu, birritan, eta helburu bakarrerako, goiburuan aipatutako lekuaneta egunean.

b) Una relación clasificada de los gastos e inversiones de la actividad, con identificación del acreedor y del documento, su importe, fecha de emisión y, en su caso, fecha de pago. En caso de que la subvención se otorgue con arreglo a un presupuesto estimado, se indicarán las desviaciones acaecidas.

c) Un detalle de otros ingresos o subvenciones que hayan financiado la actividad subvencionada con indicación del importe y su procedencia.

d) En su caso, carta de pago de reintegro en el supuesto de remanentes no aplicados así como de los intereses derivados de los mismos.

**Octava**- El incumplimiento de alguno de los compromisos contraídos por la Asociación Danontzat o la utilización para otros fines de la ayuda concedida, cuando así quede declarado por expediente tramitado al efecto por este Ayuntamiento, implicará la obligación de reintegrar al Ayuntamiento la cantidad obtenida por tal concepto.

**Novena**- Serán causas de rescisión del presente convenio las siguientes:

a) El mutuo acuerdo de las partes suscribientes.

b) El incumplimiento grave por parte de la Asociación Danontzat de las obligaciones a que se refiere este Convenio.

c) Cualquier otra causa que, derivada de la naturaleza del convenio, así se recoja por la legislación vigente.

En prueba de conformidad las partes comparecientes firman el presente documento por duplicado y a un solo efecto en el lugar y fecha arriba indicados.

MUNGIAKO UDALEKO ALKATEA
ALCALDE DEL AYUNTAMIENTO DE MUNGIA

Ager Izagirre

DANONTZAT ALKARTEAREN PRESIDENTEA
LA PRESIDENTA DE LA ASOCIACIÓN DANONTZAT

Mª Mercedes Baraiazarra